

## DBH2 GIZarte: "Herriko atarietan etorkizuna zizelkatuz"

### Ezagutzak

Helburu didaktikoak	Ebaluazio adierazleak
1. Errealitate demografikoari buruzko datuak iturri ezberdinetan eskuratu, interpretatu eta grafiko digitaletan irudikatu.	<p>1.1. Datuak markatzaileetan gordetako webgunean bilatu ondoren, datuekin grafikoak irudikatu eta interpretatu ditu.</p> <p>1.2. Datuak testuan bilatu ondoren, datuekin grafikoak irudikatu eta interpretatu ditu.</p> <p>1.3. Adin-piramidea aztertu ondoren, datuak interpretatu eta akatsak zuzendu ditu.</p>
2. Demografiari buruzko etorkizuneko aurreikuspenak adierazi, ezaugarriak eta tasak interpretatuz, kalkulatu eta erlazionatu.	<p>2.1. Demografia-tasak definitu ditut eta haiek kalkulatzeko formulekin erlazionatu ditu.</p> <p>2.2. Demografia datuak interpretatu eta biztanleria-adierazleen kalkuluak bideratu ditu.</p>
3. Hirien ezaugarriak eta arazoak aztertu eta proposamenak adierazi, biztanleriaren kokapen nagusiak eta horren arrazoiak erlazionatu.	3.1. Hirien ezaugarriak, egiturak eta arazoak identifikatu eta erlazionatu ditu.
4. Munduko migrazio-prozesuen ezaugarriak eta kausalitatea erlazionatu, migratzaileek bizileku berrietara egokitzeko dituzten zailtasunak eta horien ondorioak adierazi.	<p>4.1. Migrazioen kausak eta ondorioak identifikatu ditu.</p> <p>4.2. Migrazio prozesu eta egokitzapenaren inguruan migratzaileen sentipenak adierazi ditu.</p>
5. Aurreiritziei aurre eginez, aniztasuna taldearentzat aberastasun-iturri izateko egokiak diren jarrerak eta ekintzak ondorioztatu.	5.1. Aurreiritziak, iritziak eta informazioak bereizi ditu informazio iturrien fidagarritasuna aztertuz.